

ELKARTEAK

Gure enpresak hainbat lekutik laguntzak lortuko zituen. Hasteko lekuko udalekin akordioetara helduko ginateke jaiak datozenean gurekin hitz egiteko gure produktua erabiltzeko. Helburua gure edalontziak jai herrikoietan erabiltzen astea izango zen.

Bestalde Eusko Jaurlaritzatik enpresa bat eratzeagatik gazte izanda laguntzak jasoko genituzke lokala edo makinak alokatu edo erosi ahal izateko. Helburua gure edalontziak jai herrikoietan erabiltzen hastea izango zen. Horrela hasierako gastuak arinduko genituzke eta enpresa martxan jartzea errazago izango zen.

Beste laguntza mota batzuk jasoko genituzke produktu jasangarri bat egiteagatik, Europar Batasuna edo Espainiako Gobernutik jasoko genituzkeenak. Igurumena errespetatzen duen enpresa gisa irudia indartzea bezero gehiago lortzeko eta inguremenari laguntzeko.

Gaur egun garagardo edo freskagarri marka batzuk ere mahiak, aulkiak edo edalontziak banatzen dituzte beraz haiekin kontaktuan jarriko ginateke tabernei saltzen dietenean gure edalontzi batzuk oparitzea produktua porbartzeko eta ostean guri ordaintzeko. Horren truke gure edalontzietan garagardoaren logoa ipiniko genuke.

Beraz laguntza publikoekin eta aliantza estrategikoekin gure produktua aurrera eramateko aukera izango genuke eta baita ere fama edo ospea lortzen saiatuko ginateke.

Gure kabuz ere herriko elkarteekin kontaktuan jarriko ginateke ekintzak edo jaiak, udalatik kanpo, antolatzen direnean gure edalontziak erabiltzeko.